

ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA DIAGNOSTIKOA ETA KONTZILIAZIO-PLANA EGITEKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AGINDUA, 2022ko uztailaren 6koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarena, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartzen dituen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioari buruzko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko, eta 2022rako deialdia izango duena.

* Agindu honek laguntza-lerro bat arautzen du, kontziliazioari buruzko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egin nahi duten erakundeentzat (enpresak, elkarteak eta abar), langileen bizitza pertsonala, familia eta lana hobeto uztartzen laguntzeko, eta, horretarako, aholkularitza-enpresa baten zerbitzuak kontratatu behar dituztenentzat.

ABIAPUNTU DITUGUN GAKOAK:

KONTZILIAZIOAK ONURAK DAKARTZA

KONTZILIAZIOAK ERANTZUKIDEA IZAN BEHAR DU: ENPRESA-PLANTILLA

EGOERA EZAGUTZEA (BEHARRAK, LEHENTASUNAK, MUGAK) LAGUNGARRIA DA KONTZILIAZIO-NEURRIAK MODU ERANTZUNKIDE ETA ERAGINKORREAN EZARTZEKO



ENTITATEAREN BEREZKO EZAUGARRIAK ETA MUGAK:
SEKTOREA, EKOIZPEN-MOTA, PRODUKZIO-ERRITMOA,
LANPOSTU-MOTA, TAMAINA....



LANGILEEN PREMIAK
KONTZILIAZIOAREKIN LOTUTA
(ERREALITATEAREN AZTERKETA)

GARRANTZITSUA DA AURRETIK EGINDAKO LANA AITORTZEA ETA BALIOESTEA.

IRTENBIDE ERREALISTAK BILATZEA, BAINA SORMENARI ETA MALGUTASUNARI LEKUA UTZITA

MODU PARTE-HARTZAILEAN LAN EGITEAK INPLIKAZIOA HOBETZEN DU
(ZUZENDARITZA, ORDEZKARITZA SINDIKALA ETA PLANTILLA)

DIRU-LAGUNTZA BERRIA: 2 SUBJETUAK

KONTZILIAZIOAREN
ARLOKO
EGOERAREN
DIAGNOSTIKOA ETA
EKINTZA-PLANA

ERAKUNDE
KONTRATATZAILEA
AHOLKULARITZA-
ZERBITZUAREN
ESKATZAILEA

EMATEN DU: INFORMAZIOA, KONPROMISOA
ONARTZEN DU: PROIEKTUA ETA KOSTUA

AHOLKULARIA
ZERBITZU-
HORNITZAILEA

EMATEN DU: EZAGUTZA ETA KUDEAKETA

EGITEN DU: PROPOSATUTAKO PROIEKTUA EPEAREN
BARRUAN GAUZATZEA

Agindua, enpresei laguntzak emateko DIAGNOSTIKOa eta KONZILIAZIO PLANa egiteko aholkularitza-enpresa bat kontratatzeko

ARAUTZEN DU:

- Oinarriak
- 2022ko DEIALDIA

AURREKONTUA: 392.857,15€

XEDEA : Aholkularitza enpresa baten kontratazioa finantzatzea, bi dokumentu egiteko:

- ▶ Egoeraren diagnostikoa
- ▶ Kontziliaziorako ekintza-plana

SENTZUA: Erakundeak kontziliazioaren arloan urratsak ematera laguntzea

Agindua, enpresei laguntzak emateko **DIAGNOSTIKOa** eta **KONZILIAZIO PLANA** egiteko aholkularitza-enpresa bat kontratatzeko

NORK ESKATU DAITEKE: EAEko lantokiak dituzten erakundeek (enpresak, erakundeak, elkarteak) **KONTSULTORE** bati Diagnostikoa eta Adiskidetze Plana egiteko **KONTRATATZEN** diotenak:



- ▶ Pertsona juridikoak eta autonomoak (enpresari giza)
- ▶ 10-250 langile plantillan

ZER KONTSULTATZAILE KONTRATATU DAITEKE: edozein aholkularitza-erakunde

AHOLKULARITZA ENPRESAREKIN KONTRATUA SINATUTA EGON BEHAR DA LAGUNTZA ESKATU AURRETIK? Ez, baina laguntza emanaz gero, sinatzeko **KONPROMISOA** eskuratzen da.

ESKABIDE GUZTIAK EMANGO DIRA? EZ, NORGEHIAGOKA

Balorazio Batzordeak hobekien baloratutako proiektuak diruz lagunduko dira, aldez aurretik ezarritako irizpideen arabera, puntuazioaren arabera, kreditua amaitu arte. (Gutxienez: 50 puntu)

** Erakunde batzuek, aholkularitza enpresa batekin diagnostikoa eta plana kontratatu eta egin arren, EZ dute diru-laguntzarik jasoko (proiektuak puntuazio nahikorik lortu ez dutelako, edo kreditua agortu delako).*

NOIZ EBATZIKO DIRA ESKABIDEAK?: 2022ko abenduan baino lehen

NORK ETA NOIZ JASOTZEN DU DIRU-LAGUNTZA?

Diru-laguntza erakunde eskatzaileak

Enpresak aholkularitza-enpresari kontratatzen eta ordaintzen dio. Onuraduna izanez gero, fakturaren % 70 berreskuratuko du (10.000€ arte).

Erakunde onuradunari 2 unetan ordainduko zaio:

% 70 ebazpenaren unean

% 30 egindako lana aurkeztuta (gauzatze-memoria + diagnostikoa + plana + ordaindutako faktura)

AHOLKULARITZA-FAKTURAREN % 100 DIRUZ LAGUNTZEN AL DA? EZ, % 70 (BEZik gabe*), gehienez 10.000 €

DIAGNOSTIKORIK EDO PLANIK EZ EGITEA DIREN ONDORIOAK?: erakundeak itzuli egin beharko du jasotako diru-laguntza



**FAKTURAKO %70
(GHZ 10.000€)**

EMATEA/UKATZEA:

Familia eta Haurren zuzendariaren ebazpen bakarra

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa iragarki-taulan argitaratuz jakinaraztea ([https://www.euskadi.eus/iragarki-taula elektronikoa](https://www.euskadi.eus/iragarki-taula_elektronikoa)) + EHAA argitaratzea

Jakinarazpen-ondorioak: argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

ERAKUNDE ONURADUNEN KONPROMISOA:



- ▶ Planaren neurriren bat abian jartzen hastea, plana egin eta urtebeteko epean.
- ▶ Erakundeko pertsona bat izendatzea prozesua dinamizatzeko arduradun, agindu honen II. eranskinean jasotako baldintzetan.

DIRU-LAGUNTZA NOLA ESKATU

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2022ko uztailaren 20tik irailaren 30era (barne)


NORK AURKEZTEN DU ESKAERA: erakunde kontratatzaileak (edo ordezkariak)

ZER AURKEZTU BEHAR DEN ESKAERA EGITEN DEN UNEAN: (* Izapidetze elektronikoa)


- ▶ **Laguntza eskatzeko formularioa:** Formularioak erakunde eskatzailearen **datuak eta datu horiek egiaztatzeko aurkeztu behar dituen agiriak** jasotzen ditu (langileen kopurua, Erregistroa...).
- ▶ **II. Eranskina:** Bertan, diagnostikoa eta Kontziliazio Plana egiteko aholkularitza-entresak proposatzen duen proiektu teknikoa.

*Onuradun izateko baloratuko den dokumentua da.


PROZETUA: ESKAERA-EBAZPENA-JUZTIFIKAZIOA



1. ORDAINKETA



ABENDUA



URRIA-AZAROA



ESKAERA
IRAILAK 30
ARTE (BARNE)

2023KO MAIATZEAN:JUSTIFIKATZEA



DIAGNOSIA

+



PLANEA

+



ORDTAKO
FAKTURA

TXOSTENA

2. ORDAINKETA



2023KO
EKAINEAN

PUNT > 50 (*AURREKONTUA AGORTU ARTE)

PROIEKTUA = DIAGNOSTIKOA + KONTZILIAZIO-PLANA

AHOLKULARITZA-ENPRESAK PROPOSATUTAKO **PROIEKTUAK** BETE BEHAR DITUEN BALDINTZAK

- ▶ Erakundeari laguntzea kontziliazioaren errealitatea ezagutzen eta hobetzeko helburuak planteatzen.
- ▶ Koherentea izatea: helburuak, kronograma, epeak, saioak, prozesuak eta metodología
- ▶ Erakunde kontratatzailearen ezaugarri eta beharrei berariaz erantzuteko diseinatuta egotea (marra gorriak eta mugak errespetatuz, baina modu irekian eta sortzailean pentsatuz)
- ▶ Parte hartzea. Garrantzitsua da langileen errealitatea eta haien beharrak ezagutzea, jarduera eraginkorrak planteatzeko.
- ▶ Epe barruan gauzatu behar da. Proiektua 2022an hasi behar da eta 2023ko apirilaren 30a baino lehen amaitu. Diru-laguntzaren bigarren ordainketa kobratu ahal izateko, erakunde kontratatzaileak egindako lanaren justifikazioa (diagnostikoa, plana, prozesuaren memoria eta ordaindutako faktura) aurkeztu beharko du 2023ko maiatzaren 31 baino lehen.

DIAGNOSTIKOAK BETE BEHARREKOAK:

Diagnostikoak, gutxienez, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioari buruzko bost analisi-esparru hauek izan beharko ditu:

- ▶ Erakundearen barne-politikan kontziliazioak duen garrantzia.
- ▶ Erakundea aitortzen eta eskaintzen dituen kontziliazio-neurriak: langileek zein mailatan ezagutzen eta erabiltzen dituzten, neurriak langileen beharretara zein puntutaraino egokitzen diren, aukeren analisia lanpostuaren arabera.
- ▶ Langileen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa hobetzeko beste laguntza-baliabiderik dagoen/eskaintzen den.
- ▶ Langileei dauden kontziliazio-neurriak eta horiek eskatzeko moduak jakinarazteko prozedurak izatea. Zein mailatan ezagutzen eta erabiltzen diren.
- ▶ Erakundearen kontziliazio-neurriak ebaluatzeko, horien jarraipena egiteko eta hobetzeko adierazleak edo prozedurak egotea.

KONTZILIAZIO PLANAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Proposatuko den ekintza-planak baldintza hauek bete beharko ditu:

- ▶ EAEko establezimenduetan bakarrik aplikatzeko formulatzea.
- ▶ Erakundearen eta langileen egoerara eta beharretara egokitzea
- ▶ Hainbat urterako izatea (gutxienez 3 urterako).
- ▶ Helburuak eta horiek lortzeko neurri zehatzak proposatu beharko ditu programatutako datekin
- ▶ Emaizak neurtu ahal izateko jarraipenerako adierazleak ezarri, arduradun eragileak eta aukeratutako pertsonak identifikatu
- ▶ Neurri bakoitzari egokituko zaion aurrekontua balioetsi
- ▶ Jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema bat gehitu

PROIKTUEN BALORAZIOA: II ERANSKINA



Proiektu teknikoa modu ordenatuan eta argian azaltzea, II. eranskinean horretarako zehaztutako eremuetan.

5 IRIZPIDE BALORATUKO DIRA (14.art, Agindua). GEHIENEKOA GUZTIRA: 100 PUNTU

- A) Erakunde-eskatzaileak kontziliazioarekin duen harremana (gehienez 16 puntu).
- B) Proiektua erakunde-eskatzailearen ezaugarrietara eta beharretara moldatzea (gehienez 25 puntu).
- C) Kontziliaziorako diagnostikoaren lanketa (gehienez 25 puntu).
- D) Kontziliaziorako ekintza planaren lanketa (gehienez 25 puntu).
- E) Kontziliaziorako ekintza-planaren ezarpena eta jarraipena (gehienez 9 puntu).

DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO GUTXIENEKOA: 50 PUNTU

KONTUZ!! II. eranskineko eremuetan txertatzen den informazioa bakarrik hartuko da kontuan. (Zehaztasunaren, definizioaren eta eskaintzen den irizpidearekiko lerrokaduraren arabera puntuatuko da)

PUNTAZIO-IRIZPIDE BANAKATUAK (I)

A) Erakunde-eskatzaileak kontziliazioarekin duen harremana (gehienez 16 puntu).

- ▶ A.1. Erakundeak izandako ibilbidearen laburpena kontziliazioaren arloan. Esperientzia eta ibilbidea (gehienez 4 puntu).
- ▶ A.2. Jarrera eta motibazioa proiektuaren aurrean (gehienez 4 puntu).
- ▶ A.3. Proiektu hori martxan jartzeko arrazoiak eta erakundeak ekimen horrekin lortu nahi dituen helburuak (gehienez 4 puntu).
- ▶ A.4. Laguntzaren eraginaren aurreikuspena erakunde barnean eta bertatik kanpo (gehienez 4 pt.).

B) Proiektua erakunde-eskatzailearen ezaugarrietara eta beharretara moldatzea (gehz. 25 puntu).

- ▶ B.1. Erakundearen egoerara eta beharretara duen egokitze-/doitze-maila (gehienez 5 puntu).
- ▶ B.2. Proiektua erakundearen politiketan integratzeko eta plantillan zabaltzeko formulak (erakundearen kontziliazioari buruzko diagnostikoa eta ekintza-plana egitean erabiltzea aurreikusten diren lan-dinamikak eta informazioa zabaltzeko dinamikak) (gehienez 5 puntu).
- ▶ B.3. Proiektua sustatzeko taldea: osaera eta izango dituela aurreikusten diren funtzioak (gehienez 5 puntu).
- ▶ B.4. Proiektua erakundearen beharretara egokitzea denborari dagokionez (gehienez 5 puntu).
- ▶ Proiektuak diagnostikoaren eta planaren lanketa moldatzen du erakundearen produkzio-erritmoetara eta bertako sail eta lanpostuetara.
- ▶ B.5. Ekonomikoki egokitzea (gehienez 5 puntu).



PUNUAZIO-IRIZPIDE BANAKATUAK (II)



C) Kontziliaziorako diagnostikoaren lanketa (gehienez 25 puntu).

- ▶ C.1. Diagnostikoarekin lortu nahi diren helburuak (5 puntu).
- ▶ C.2. Diagnostikoan aztertuko diren esparruak/alderdiak (5 puntu).
- ▶ C.3. Erakundearen diagnostikoa eskaintzeko informazioa lortu eta egiaztatu ahal izateko aurreikusten den metodologia. Datuak biltzeko erabiliko diren lanerako erreminta motak (inkestak, elkarrizketak...) (5 puntu).
- ▶ C.4. Parte-hartzeko prozesuak (5 puntu).
- ▶ C.5. Plantillan emaitzak zabaltzeko formulak (5 puntu).

D) Kontziliaziorako ekintza planaren lanketa (gehienez 25 puntu).

- ▶ D.1. Planaren lanketarekin lortu nahi diren helburuak (6 puntu).
- ▶ D.2. Ekintza-eremuak eta ildo estrategikoak zehaztea (7 puntu).
- ▶ D.3. Helburuak eta neurriak zehazteko, aukeratzeko eta lehenesteko erabiliko diren irizpideak eta metodologia (8 puntu).
- ▶ D.4. Planaren datak programatzea (4 puntu).

E) Kontziliaziorako ekintza-planaren ezarpena eta jarraipena (gehienez 9 puntu).

- ▶ E.1. Erakundea osatzen duten eragileei plana jakinarazteko/zabaltzeko metodologia. Balioetsiko da plana bai erakunde barruan (plantillari) bai erakundetik kanpo (bezeroei, webgunean...) zabaltzea (5 puntu).
- ▶ E.2. Neurriak jarraitzeko eta gauzatzeko eta planeko helburuak ebaluatzeko eta berraztertzeko erreminta/egitura (4 puntu)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES